



Parte-hartzeko Prestakuntza-ikastaroak

Urtarrila
—
Martxoa 2023

Gai hauei buruzko ikastaroak

1. GIZARTE-TREBETASUNAK
2. PARTAIDETZA-TRESNAK
3. GIZARTERATZEA
4. ELKARTEEN KUDEAKETA
5. TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK
6. KULTURARTEKOTASUNA



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

zenitro

Espacio colaborativo | Elkarlaneko gunea



<http://participa.pamplona.es>
formacion.participacion@pamplona.es
 Tel. 948 420 266

AURKIBIDEA

Zentro. Elkarlaneko gunea	4
Partaidetzarako prestakuntza. Prestakuntza nahieran, gizarte-erakundeendako	5
Argibideak eta behin-behineko izen-emateak	6
Etengabeko prestakuntza	7
1. Gizarte-trebetasunak	8
2. Partaidetza-tresnak	11
3. Gizarteratzea	16
4. Elkarleen kudeaketa	20
5. Trebetasun teknologikoak	23
6. Kulturartekotasuna	24
Ikastaro guztien egutegia	26

NEGUAN AURRERA JARRAITZEN DUGU!

Herritarren partaidetzaren arloko prestakuntza-ikastaroen programazio honek urtarri-martxorako aurrez aurreko ikastaroak biltzen ditu. Programazioan egon daitezkeen aldaketak une bakoitzean egoerara eta ezarritako neurrietara egokitzeko izanen dira.

ZENTRO

Zentro Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorraren barruan dago. Guneak xede du udalerriko kolektiboetara eta eragile sozialei partaidetza arloan laguntzea eta gaitzea, eta horretarako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Informazio eta Baliabide Zerbitzua. Liburutegia eta Dokumentazio Zentroa.
- Aholkularitza tekniko eta legaleko Zerbitzua. Partaidetzarako prestakuntza.
- Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzua.

Helburu du

- Herritarren Partaidetzako zerbitzuak zentralizatzea eta herritarren eta profesionalen eskura jartzea.
- Gizarte-loturak eta herritar aktiboak sustatzea.
- Lankidetzaren dinamikak indartzea Udalaren, gizarte-entitateen eta tokiko garapenaren alde egiten duten herritarren artean.
- Gaitze-prozesuak garatzea, hiriko eragile sozialei zuzendutako partaidetza eta herritartasun aktiboko arloetan.
- Guneak sortzea herritar aktiboak eta gizarte-entitateak elkartu daitezkeen eta gogoeta egin dezaten.

Nori zuzendua

Gizarte zibilari (antolatuari zein antolatu gabeari), herritarren elkarte, kolektibo eta entitateei, Udaleko eta Administrazio Publikoko langileei (politikariei eta teknikariei) eta arlo sozio-komunitarioko langileei (gizarte-hezkuntza, -kultura, -osasun, -ingurumen eta abarrekoei).

Kokapena eta harremanetarako datuak

Tel	948 42 02 66
Emaila	formacion.participacion@pamplona.es
Webgunea	http://participa.pamplona.es/ https://decide.pamplona.es
Youtube:	participa.pamplona
Facebook:	participa.pamplona
Twitter:	@participa_pna
Flickr:	participa.pamplona

Partaidetzarako prestakuntza.

Prestakuntza nahieran, gizarte entitateendako

5

Herritarren Partaidetzak 18 ikastaro eskaintzen ditu 2023ko urtarrilean, otsailean eta martxoan, euskaraz eta gaztelaniaz, hala herritarrei nola kolektibo zein elkartei zuzenduak.

Hona hiruhileko honetan zedarritu diren ildoak:

1. Gizarte-trebetasunak
2. Partaidetza-tresnak
3. Gizarteratzea
4. Elkarleen kudeaketa
5. Trebetasun teknologikoak
6. Kulturartekotasuna

Zer eskaintzen dugu?

Hainbat prestakuntza- eta sustapen-zerbitzu eskaintzen dira

- Etengabeko prestakuntza (hiru hilekoa)
- Prestakuntza nahieran (gizarte-erakundeendako)
- Prestakuntza elkarteekin (Alorraren partaidetza-prestakuntzarako dirulaguntzen bidez)
- Partaidetza sustatzeko hainbat jarduketa mota antolatzea, hala nola jardunaldiak, hitzaldiak, topaketa-foroak, argitalpen propioak...

Nola lagundu? Prestatzaileen eta ikastaro-proposamenen poltsa

Herritarren Partaidetzak prestatzaileen eta ikastaro-proposamenen poltsa bat sortu du, prestakuntza-jarduerak eman nahi dituzten profesionalak edo enpresek proposamena egiteko aukera izan dezaten. Halaber, prestatzaileen elkarteekiko hartu-emanak erraztuko dira, betiere beharrak kontuan hartuta.

Prestatzaileen poltsan sartzeko, proposamen bat bidali beharko da, honako hauez osatua:

- Aurkezpen-gutuna
- Prestatzailearen fitxa
- Prestakuntza-proposamenaren fitxa
- Curriculum vitae

Hona bidali: formacion.participacion@pamplona.es

ARGIBIDE GEHIAGO

Hezkuntza, Herritarren
Partaidetza eta Gazteriako Alorra
Zentro, elkarlaneko gunea

MATRIKULA DOAN

- **18 urtetik gorakoendako**, ikastaro jakin batzuetan izan ezik; kasu horietan, prestakuntza-jarduerari buruzko informazioan zehaztuko da.
- Behin-behineko izen-ematea egiteko epeak berariaz zehazten dira ikastaro bakoitzean. Irizpide orokor gisa, **behin-behineko izen-ematea egiteko epea irailaren bigarren hamabostaldian zabalduko da, eta ikastaro bakoitza hasi baino bi aste lehenago itxiko.**
- **Ikastaro batzuk euskaraz eskaintzen dira, beste batzuk, gaztelaniaz.**
- Behin-behineko izen-ematea egiteko, onlineko formulario bat bete beharko da nahitaez ikastaro bakoitzeko, participa.pamplona.es webgunean sartuta.
- Behin-behineko izen-ematearen epea amaituta, eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie onartuak izan diren edo ez.
- **Onartuek izen-ematea berretsiko dute behin betiko izena emanaz.**
- Parte-hartzaileak onartuko dira, ikastaro bakoitzeko ikasleen gehieneko kopurua osatu arte.
- **Izena eman baduzu baina ezin bazara ikastarora etorri**, ikastaroa hasi aurretik jakinarazi, mesedez. Jardueran baja ematen baduzu, beste pertsona batek izena ematen ahalko du zuk libre utzi duzun lekuan.
- Ikastaroren baterako eskainitako lekuak baino eskaera gehiago badira, ikastaro bakoitzaren berariazko irizpideen arabera hautatuko dira parte-hartzaileak, betiere Iruñean erroldatuta egon eta bizi direnei lehentasuna emanaz.
- Aurrera begira, kontuan hartuko da ikastaroaren % 85era agertu ez diren pertsonen kasua, eta ikastaroren batean lan pertsonala egiten bada, hura entregatu ez izana.
- Halaber, **bertaratze-agiria emanen zaie** ikastaroaren ehuneko horretara agertu diren ikasleei.
- Gutxieneko izen-emate kopurura iristen ez diren ikastaroak bertan behera utz daitezke.

Edukia

1. GIZARTE-TREBETASUNAK	8
1.1. Pertsonen arteko gatazkak kudeatzea	8
1.2. Harreman seguruek/Harreman ez-seguruek: harreman-osasuna eta bizikidetzaren bakea	9
1.3. Komunikazio eraginkorra praktikaturaz (euskaraz)	10
2. PARTAIDETZA-TRESNAK	11
2.1. Antzerkia esku-hartze sozialerako eta ahalduzko indibidual eta kolektiborako tresna gisa (euskaraz)	11
2.2. Bizikidetzaren sustatzea: bitartekaritza esku-hartzeetarako tresnak eta estrategiak	12
2.3. Bilerak dinamizatzeko oinarritzko baliabideak (gaztelaniaz)	13
2.4. Bilerak dinamizatzeko oinarritzko baliabideak (euskaraz)	15
2.5. Visual Thinking: marrazkiak prozesuak komunikatzeko eta errazteko	14
2.6. Ez ezazu kontatzeko beldurrik izan: jendaurrean hitz egiteko teknikak	15
3. GIZARTERATZEA	16
3.1. Gizarte mentoretza: laguntza informala	16
3.2. Elkarrekin eta ikastetxeen partekatutako egitasmoak: APS metodologia	17
3.3. Lan-mentoretzako lantegia	18
4. ELKARTEEN KUDEAKETA	19
4.1. Boluntarioen kudeaketa zure elkartearen	19
4.2. Zure elkartearen interesatzen zaio: nola egin dirulaguntza deialdiak aurkezteko egitasmoak	20
4.3. Elkartearen finantzaketa eta kontabilitatea	21
5. TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK	22
5.1. CANVA, zure afixak, irudiak eta bideoak alde aurreko ezagutzarik izan gabe sortzeko diseinuko-konzeptuak eta doako beste baliabide batzuk	22
6. KULTURARTEKOTASUNA	23
6.1. Nafarroako gizartearen kultur-gakoak kulturarteko bitartekotzarako	23
6.2. Kulturarteko Bitartekaritza kultur-gakoak	24

1

Gizarte-trebetasunak

1.1

PERTSONEN ARTEKO GATAZKAK KUDEATZEA

Datak	Martxoak 24 eta 25 (ostirala eta larunbata)
Ordutegia	Ostiralean, 17:00 - 21:00; eta larunbatean, 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 21:00
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2.
Behin-behineko izen-ematea	Martxoaren 10a arte

Iraupena	<p>Oihu bakoitzaren atzean behar bat dago.</p> <p>Pertsonen arteko gatazkak kudeatzea oso zaila iruditzen ahal zaigu: iritzietan harrapatuta geratzen gara eta geure buruari edo besteei errua botatzen diegu.</p> <p>Baina hori opari gisa ere ikus dezakegu eta aukera baliatu: gure beharrez jabetzen gara, horiek mahaiaren gainean jartzen ditugu eta horiek zaintzeko lehen urratsa bilatzen dugu.</p>
12 ordu	
Nork emana	
Franziska Rautenberg. Psikologoa (tituluduna Alemaniako FU-Berlingo Unibertsitatean http://www.ewi-psy.fu-berlin.de/), terapeuta sistemikoa familia eta bikoteetan (Euskadi eta Nafarroako Familia Terapiako Eskola). Indarkeriarik gabeko Komunikazioko pres-tatzaile egiaztatua CNVC-n. Bideratzailea Embodied Peacemaking-ean. Psikologia Kritikoaren eta subjektuaren zientzien adiskidea.	Edukiak
	<ul style="list-style-type: none">- Mezu bat jasotzeko 4 modu.- Mugak: Entzutea eta ezetza adieraztea.- Gatazken kudeaketa- Esker ona

1

Gizarte-trebetasunak

1.2

HARREMAN SEGURUAK/HARREMAN EZ-SEGURUAK: HARREMAN-OSASUNA ETA BIZIKIDETZA BAKEAN

Datak	Martxoak 8, 9, 15 eta 16
Ordutegia	Asteazken eta ostegunetan: 17:00 - 20:00
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2.
Behin-behineko izen-ematea	Otsailaren 22a arte

Helburuak	<p>Gizarte-babes falta arrisku-faktore bat da osasun arazoetarako. Besteekiko lotura emozional falta osasun publikoko arrisku bat da. Testuinguru horretan, harremanen kalitatea gero eta garrantzitsuago bihurtzen da pertsonen bizitzan, baina horretarako beharrezkoa da harremanak modu egokian, berdintasunezkoan eta errespetuzkoan kudeatu eta komunikatzeko gai izatea.</p> <p>Bizikidetzaren eta harreman-osasunaren esparruan lan egitea harreman ez-seguruek eta harreman-indarkeriak sortzen dituzten ondoeza eta indarkeria prebenitzeko modu bat da, egiten dugunak besteengan duen inpaktua ulertzea ahalbidetzen duelako.</p> <p>Egoeraren araberako indarkeriaren ohiko dinamikak bereiziko ditugu, oso normalizatuta daudenak, arlo baten edo batzuen kudeaketan arazoak sortzen dituztenak, eta osasunerako indarkeriazko harreman-dinamika ez-segurua sortzen dutenak. Jakin badakigu, prebentzio-lanarekin gai horiei erantzuten ahal zaiela zer ez den ongi egiten ari identifikatzeko, mugak ezartzeko eta beharrak adierazteko, hala horiei modu osasungarrian aurre egin ahal izateko. Tratu onen esparru horretan lan eginez gero, pertsonak posible dute horrenbeste larritasun eta ondoez sortzen dituzten alderdiak identifikatzea eta bizikidetzaren bakean sustatzeko tresnak eskuratzea.</p>
Iraupena	
12 ordu (aurrez aurrekoa)	
Nork emana	Edukiak
Maite Eraso Ascunce. Gizarte-lan-gilea + Bitartekaria Meeting Point-en. Aditua bikoteen, familien eta erakundeen gatazketan.	<ul style="list-style-type: none">- Gatazka: aldatzeko haina deserosoa den tentsioa.- Bereiztea: esperientzia emozionala eta eragindako portaera.- Kide izatea bizikidetzaren oinarri gisa.- Zer gertatzen zaigu? Indarkeria eta desberdinarekiko gorrotoa.- Etiketak jartzea eta aurreiritzia.- Proiektzioak eta beldurrak: zu ispilu bat zarenean.- Nor da nor: besteak eta gu.- Bandera gorriak eta segurtasun eza antzeman eta maneiatzeko tresnak.

1	Gizarte-trebetasunak	
	1.3	KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA PRAKTIKATUZ (EUSKARAZ)

Datak	Otsailak 10 eta 11
Ordutegia	Ostiralean, 17:00 - 21:00, eta larunbatean, 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 21:00.
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2.
Behin-behineko izen-ematea:	Otsailaren 3a arte

Iraupena	<p>Ezinezkoa da ez komunikatzea. Etengabe komunikatzen dugu begiradarekin, isiluneekin, gorputzaren jarrerarekin, hitzekin. Erronka soltuz komunikatzea da, sentitzen dugunarekin eta garen horrekin koherente izanez.</p> <p>Izaera praktikoko eta bizipenezko ikastaro honetan komunikazioaren artea menderatzeko tresnak ezagutuko ditugu, eta gozamen eta benetakotasun handiagoz mugituko gara pertsona barruko eta pertsonen arteko komunikazioan.</p> <p>Hainbat diziplinatan oinarritutako dinamikak erabiliko dira, hala nola coachingean, programazio neurolinguistikoan eta Alba Emoting metodoan. Sormen-ariketak, erlaxatzekoak eta gorputz-adierazpenekoak ere eginen dira, musikaz lagunduta.</p>
12 ordu (aurrez aurrekoa)	
Nork emana	
Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena. Egiaztagiria duen coach-a, Trainer masterduna Programa-zio Neurolinguistikoan (PNL) eta Ikus-entzunezko Komunikazioan Lizentziaduna.	
	Helburuak
	<ul style="list-style-type: none"> - Indargune pertsonalak eta hobetu daitezkeen arloak ezagutzea - Bakoitzak taldeetan komunikatzeko dugun estilo bakarra eta geurea ezagutzea - Gure emozioak hobeki erregulatzeko eta ezagutzen ikastea - Elkarrizketa eraginkor bat mantentzeko urratsak ikastea - Gure komunikazioari lotutako sineskeria mugatzaileak apurtzea - Gure barne-elkarrizketa eta auto-estimua hobetzea, gure argi-ilunak onartuz - Gure harreman pertsonalak edo profesionalak hobetzeko tresnak eskuratzea - Beste taldekide batzuen esperientzietatik elikatzea
	Edukiak
	<ul style="list-style-type: none"> - Norberaren balioak eta gaitasunak - Sineskeria mugatzaileak eta uste indartzaileak - 3 dimentsioak: hizkuntza, gorputza eta emozioa - 3 jarrerak: 1. pertsona, 2. pertsona, 3. pertsona - Funtsezko gaitasunak: empatia, auto-konfiantza, malgutasuna - Elkarrizketa ahaltsu baterako 5 urratsak - Emozioen kudeaketa eta zikloa - Harreman motak eta komunikazio-estiloak

Partaidetza-tresnak

2

2.1

ANTZERKIA ESKU-HARTZE SOZIALERAKO ETA AHALDUNTZE INDIVIDUAL ETA KOLEKTIBORAKO TRESNA GISA (EUSKARAZ)

Datak	Martxoak 31 eta apirilak 1 eta 2
Ordutegia	Ostiralean, 17:00 - 21:00; larunbatean, 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 21:00 eta igandean, 10:00 - 14:00
Tokia	Descalzos 56 Udal Aretoa (igogailuaren eraikina), Descalzos kalea 56.
Behin-behineko izen-ematea	Martxoaren 17a arte

Edukiak	<p>Lantegi honen bidez, ongizaterako gune bat eta topaketa bat sortzea proposatzen da, askatasunez gozatzeko eta jolasteko, baita zoriontsu izateko ere. Besteak beste, landuko dira gorputza eta ahotsa, bost zentzumenak, sormena, adierazpena, inprobisazioa eta emozioak. Halaber, antzerkia baliogarri izanen da geure burua eta inguruan duguna ezagutzeko tresna gisa, hori agerian jarri eta seinalatzeko, eta errealitatea aztertzeo eta eraldatua izan behar duela uste dugun hori aldatzen saiatzeko.</p> <p>Ariketa eta jolasen bidez, konfiantzazko giroa sortuko dugu, eta gero, taldean sor daitezkeen intereseko gaiak identifikatu eta jorratuko ditugu, horien inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko asmoz, nola eta egiteko beste modu posible batzuk edo egoerei aurre egiteko bestelako moduak "entseatuta". Antzerki-foro edo eszena-foro txikiak sortuko ditugu, eta, taldea horretarako prest agertzen bada, horiek jendaurrean erakutsi, beste pertsona batzueganazabalduko den elkarrizketa ireki batean parte hartzeko. Berbalizatiotik ihesi, elkarrizketa horri antzerkiaren eta ekintza-aren bidez helduko zaio. Publikoko pertsonak ez dira ikusle hutsak izanen, "ikusleAKTOREak" baizik, eta eszenetan parte hartzen ahalko dute egiteko eta izateko beste modu batzuk erakusteko; hori guztia gizarte-eraldatzea premisatzat duen esparru baten barruan.</p>
Iraupena	
16 ordu (aurrez aurrekoa)	
Nork emana	
Eider Sainz de la Maza Alday	<p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ongizate eta konfiantzazko espazio bat sortzea, antzerki-dinamika ezberdinen bidez. - Taldeak ongi pasatzea, barre egitea, gozatea, erlaxatzea eta jolastea. - Sormena eta bat-batekotasuna garatzea; adierazpena lantzea. - Taldean oihartzun gehien dituzten gaiak identifikatzea eta errespertzeko elkarrizketarako espazio bat zabaltzea egoera horien inguruan, zenbait dinamikatatik abiatuta, non taldeko pertsona oro entzuna, zaindua eta eroso sentituko baita. - Antzerki Foroko antzezlanak edo eszenak sortzea, eta taldeak aukeratzaren duenaren arabera, horiek jendaurrean erakustea, elkarrizketa komunitatera zabaltzeko eta in situ parte-hartzeak sortzeko.

2

Partaidetza-tresnak

2.2

BIZIKIDETZA SUSTATZEA: BITARTEKARITZAKO ES-KU-HARTZEETARAKO TRESNAK ETA ESTRATEGIAK

Datak	Martxoak 20, 23, 27, 29 eta 30
Ordutegia	Astelehen, asteazken eta ostegunetan, 17:00 - 20:00
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2.
Behin-behineko izen-ematea	Martxoaren 6a arte

Metodologia	<p>Komunitate-inguruneen ongizatea ez da berez ematen, pixkanaka-pixkanaka eraikitzen da, eta indartu egiten da elkarren arteko topaketarekin eta bestearen eta besteen arteko topaketarekin eta ezagutzarekin. Ezagutzatik eta aitortzatik bakarrik has gaitzke pertsonen berdintasunaren alde lan egiten: ezagutzen badut bakarrik izan dezaket enpatia. Elkar ezagutzeko, elkarrekin hitz egin eta elkarri entzun behar diogu, eta bestea komunitateaz bestelakoa eta okerragoa delako ustea eraitsi.</p> <p>Bizikidetzaren sustapenean lan egiteko, tresna eraginkorren oinarritzko ezagutzak behar dira berariazko prozesu eta teknikei buruz. Ikastaro honetan, modu praktikoan landuko ditugu tresnak eta metodologia bakoitzaren egokitasuna.</p> <p>Xedea da pertsonak gaitzea esku-hartze komunitarioko metodologiak helburuetara egokitzeko: metodologia parte-hartzaileak, bitartekaritzako esku-hartzeak, lankidetzaz-espazioak, arbitrajeak, etab.</p>
Iraupena	
18 ordu (aurrez aurrekoa)	
Nork emana	
Maite Eraso Ascunce. Gizarte-lan-gilea + Bitartekaria Meeting Point-en. Aditua bikoteen, familien eta erakundeen gatazketan.	<p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gatazkak diagnostikatzeko oinarritzko ezagutzak eskuratzea. - Gatazkak kudeatzeko metodologiak esparru komunitariora egokitzeko ikastea. - Auzo/komunitate-espazioetan bitartekaritzako esku-hartzeak egiteko estrategiak eta tresnak eskuratzea.
	<p>Edukiak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bestearekiko beldurra: topaketa eta konexioa gizarte-kohezioaren motore gisa. - Metodologiaren egokitzapena: bitartekaritza, arbitrajeak, parte-hartzea eta lankidetzaz. - Gutxieneko baldintzak inguruan, bitartekaritzako esku-hartzeak egin ahal izateko. - Gatazkak konpontzeko estrategiak eta metodoak, komunitatearen testuingurura aplikatuta. - Pertsonen arteko elkarriketarako espazioak bideratzeko tresna eraginkorrak.

2	Partaidetza-tresnak	
	2.3	BILERAK DINAMIZATZEKO OINARRIZKO BALIABIDEAK (GAZTELANIAZ)
	2.4	BILERAK DINAMIZATZEKO OINARRIZKO BALIABIDEAK (EUSKARAZ)

Data	Gaztelaniaz: martxoak 14 eta 21 (asteartekak) Euskaraz: otsailak 15 eta 22 (asteazkenak)
Ordutegia	17:00 - 19:00
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2.
Behin-behineko izen-ematea:	Otsailaren 28a arte

Iraupena	Modu praktikoan eta dinamikoan bileren eta topaketen funtzionamendura bideratuko den prestakuntza, elkarreendako eta, oro har, herritarrendako. Iruñeko Udaleko Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzuaren esperientzian oinarritutako oinarrizko alderdiak landuko dira.
4 ordu (aurrez aurrekoa)	
Nork emana	
Iruñeko Udaleko Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzua.	Helburuak
	Oinarrizko ezagutza orokorrak eta atariko ezagutza praktikoak eskuratzeko, bilerak dinamizatzeko.
	Edukiak
	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera eraginkor baterako aholkuak. - Bilera baten faseak. - Esperientzia praktikoak.

2	Partaidetza-tresnak	
	2.5	VISUAL THINKING: MARRAZKIAK PROZESUAK KOMUNIKATZEKO ETA ERRAZTEKO

Datak	Otsailak 2, 3, 9, 10, 16 eta 17.
Ordutegia	Ostegun eta ostiralean, 17:30 – 20:00
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2.
Behin-behineko izen-ematea	Urtarrilaren 28a arte

Edukiak <ul style="list-style-type: none"> - Tresna metodologikoaren hastapenak. - Asmoz begiratzea - Nola egiten da bideratze grafikoa? - Visual Thinking-aren zenbait teknika. - Zertarako erabili Visual Thinking? - Ikusizko pentsamendua, pentsamendu kritikoa indartzeko 	<p>Bideratze grafikoaren erabilgarritasunari eta metodologiari buruzko hastapen-ikastaroa. Bideratze grafikoa ikusizko pentsamenduaren (Visual Thinking) teknika bat da, baita aurrerapauso bat ere berrikuntza eta komunikazioaren eraginkortasuna lortzeko, eduki konplexuak azaltzeko eta partaidetza-prozesuak dinamizatzeko.</p>
	Metodologia
	<p>Saio teoriko-praktikoak banakako zein taldekako dinamikekin. Parte-hartzaileei oinarritzko gaitetia eta erreferentzia-iturriak emanen zaizkie</p>
Iraupena	Helburuak
<p>15 ordu (aurrez aurrekoa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikusizko komunikazioaren oinarriak eta ikusizko pentsamenduaren prozesua ezagutzea. - Kontzeptu-marrazketa eta Gramatika Garbiaren oinarriak ezagutzea. - Visual Thinking-ek edukia nola lantzen duen ulertzea: kontakizun grafikoaren gakoak. - Visual Thinking-en teknika nagusietako batzuk ikastea: skechnoting-a, sintesi grafikoak, graphic recording-a (ikusizko munduak). - Visual Thinking edo Ikusizko Pentsamenduaren indarguneak ezagutzea eta arlo profesionalean nola eta zertarako erabili daitekeen ikastea. - Visual Thinking-a talde-dinamizazioetan nola erabili ikastea. - Partaidetza prozesu bat diseinatzea ikuspegi estrategiko eta elkarlaneko batetik, ikusizko pentsamendua baliatuz.
Nork emana	
<p>Mercedes Corretge Arrastia. Visual Thinking-eko prestatzailea eta dokumentatzaile grafikoa.</p>	

2	Partaidetza-tresnak	
	2.6	EZ EZAZU KONTATZEKO BELDURRIK IZAN: JENDAU-RREAN HITZ EGITEKO TEKNIKAK

Datak	Martxoak 1, 2 eta 3
Ordutegia	Asteazkena, osteguna eta ostirala, 18:00 - 20:00
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2.
Behin-behineko izen-ematea	Otsailaren 15a arte

Edukiak	<p>Jende-talde baten aurrean jarri eta edozein egoera, pasadizo edo speech, baita ere zeure burua edo egitasmo bat aurkezteko edo lan bat azaltzeko tresnak badauzkazu, beharbada, lotsa galtzen edo ahotsa indartzen lagunduko dizun norbait da behar duzun bakarra. Zure ahotsak, ziur nago, ez du inor epel utziko.</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Lotsa galtzea - Nola egituratu diskurtso bat (naizenaren, nagoen tokiaren eta lortu nahi dudanaren indarra) - Arnasketa - Ahots-proiektzioa - Gorputz-hizkuntza 	
Iraupena	<p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Entzule talde bati aurre egiteari beldurra kentzea. - Ezagutzak biltzen ikasi eta horiek diskurtsoan interesgarri bihurtzea. - Diskurtsoa, gorputz-hizkuntza eta proiektzioa aldatzea entzule motaren arabera.
6 ordu (aurrez aurrekoa)	
Nork emana	
<p>Daniel Zarranz Armendáriz. Arte eszenikoetan diplomaduna Bartzelonako Art Actors Queralt, Set D'acció eta Actúa Studio eskoletan. Zuzendaria eta antzokiko antzezlea.</p>	

3	Gizarteratzea	
	3.1	GIZARTE MENTORETZA: LAGUNTZA INFORMALA

Data	Otsailak 14
Ordutegia	Asteartean, 18:30 – 20:30
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2.
Behin-behineko izen-ematea	Otsailaren 7a arte

Helburuak	<p>Gizarte mentoretza da beren burua borondatez eskaintzen duten pertsonen arteko harremana sustatzea, aukera-ezberdintasun egoeran dagoen beste pertsona bati banakako laguntza emateko, kasu honetan, Nafarroan inoren kargu ez dauden gazte atzerritarrei. Lantegia gizartean esku-hartzeko metodologia horretara hurbiltzen da, eta onura ugari dakarzkie egitasmoan bai parte hartzaile diren mentoregaiei baita mentore lana egiten dutenei ere.</p>
Gizarte mentoretza laguntza ez-formalerako tresna bezala ezagutaraztea	
Iraupena	
2 ordu (aurrez aurrekoa)	
Nork emana	Edukiak
Unai Esparza Ezkurra (Gizarte Mentoretzako Kideak programa), ZABALDUZ (Gizarte Ekimeneko Kooperatiba)	<p>Lantegiaren edukiak dira proiektu esperimentalaz azalpenak eta inoren kargura ez dauden migratzaileak gizarteratzeko tresna gisa gizarte mentoretza erabiltzeaz azalpenak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sarrera: gizarte mentoretza. - Gizarte mentoretzaren ahalmenak gizarte ekintzan. - Gizarteratzea eta gizarte-kohesioa gizarte mentoretzaren bidez. - Mentorearen rola eta bere ingurunea. Mentorearen profila. - Gizarte mentoretzako esperientziak Nafarroan. Kideak programa. - Eztabaida eta iritziak trukatzeko. Galderak.

3	Gizarteratzea	
	3.2	ELKARTEEK ETA IKASTETXEEK PARTEKATUTAKO EGITASMOAK: APS METODOLOGIA

Datak	Urtarrilak 31, eta otsailak 2, 7 eta 9
Ordutegia	Astearte eta ostegunetan, 17:30 - 20:00
Tokia	<ul style="list-style-type: none"> - Urtarrilak 31: Kondestablearen Jauregian (Kale Nagusia, 2) - Otsailak 2: Mendillorriko BHI (Uztarroztz kontzejuaren k. 2) - Otsailak 7 eta 9: Descalzos k. 56ko aretoa (igogailuaren eraikina)
Behin-behineko izen-ematea	Urtarrilaren 23a arte

Helburuak	<p>Hezkuntzako lege berriak (LOMLOE) atarikoan hau dio: "herritar guztiendako kalitatezko hezkuntza bermatzeko, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitateko kide guztien eta gizarte osoaren konpromisoa." Lege berriak Ikaskuntza eta Zerbitzua Nafarroako ikastetxeetan duen garapena eta gordialdia indartzen ditu, eta aukera handia ematen die gizarte-erakundeei, era horretan helburuak ikastetxeekin batera lantzen ahal dituztelako.</p> <p>Ikaskuntza-Zerbitzua (ApS), edo Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa (AySS) izenez ezagutzen dena, Ikaskuntza-prozesuak eta komunitate-zerbitzuak ongi egituratutako proiektu bakar batean uztartzen dituen hezkuntza-proposamena da. Horrela, parte-hartzaileek ingurunearen benetako beharren inguruan lan egiten ikasten dute, hori hobetzea jomuga hartuta. (Centre Promotor d'Aprenentatge Servei).</p> <p>Hurrengo ikastaroak esparru orokorra eta esperientzia praktikoak ezagutarazteko bi saio hartuko ditu Nafarroako ApSren Jardunaldien barnean, eta beste bi saio eginen dira, berariazkoak, sakontzen lagundu eta ikastetxeekin ikaskuntza eta zerbitzu egitasmoak praktikan jartzeko.</p>
Metodologia	Edukiak
<p>Azalpen teorikoa eta praktikoa uztartuko dira, egitasmo bat diseinatu da eta iaz, 2022an, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren laguntza duen lehiaketan saritutako 8 proiektu ezagutuko dira. Horieta bazuak desgaitasuna, migrazioa, kulturartekotasuna, garapenaren aldeko lankidetzak, ingurumen gaiak... lantzen dituzte eta gai horiekin harremana duten entitate eta instituzioekin elkarlanean aritzen dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Urtarrilak 31: 2023ko Nafarroako AySS Jardunaldiak. Instituzioen babes indartsua duen saio honetan, testuingurua emanen diogu APSari, nazioarteko mugimendu bihurtu baita, eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren laguntzarekin, Redapsek eta Edebé fundazioak antolatutako estatuko 2022ko ApS egitasmoen Sarietan aintzatetsitako Nafarroako 8 egitasmoak ezagutzen ahalko ditugu. <ul style="list-style-type: none"> • Hasiera-ekitaldi instituzionala: Nafarroako Gobernua, Iruñeko Udala, Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa (NUKF) eta Nafarroako Gaztediaren Institutua (NGI). • Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak, mugimendu globala: Nafarroatik nazioarteko sareetara. • 2021/2022 ikasturteko praktika onen aitortza: Espainiako Ikaskuntza-zerbitzuko Sarean (REDAPS) saritutako 3 egitasmoen eta 5 finalisten aurkezpena. - Otsailak 2: Ikaskuntza-zerbitzua eta Justizia Globala: elkar aberasten duten bi ikuspegi gizarte-aldaketara bideratutako hezkuntza baterako. Katalunian duela hamar urte baino gehiagotik ari dira Justizia Globalaren aldeko Hezkuntzaren (EpJG) ikuspegia AySSren bidez lantzen. Saio honetan aztertu ahal izanen dugu nola aberasten eta osatzen duten elkar bi ikuspegi horiek honako gai hauek lantzean: justizia ekonomikoa (desberdinkeria), ingurumen-justizia, genero-justizia (ekitatea) eta migratzeko eta babeserako Eskubidea. <ul style="list-style-type: none"> • Brenda Bär, Universitat de Barcelona, Centre Promotor ApS Catalunya • María Monzó, Justicia Globaleko eta Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaritza - Bartzelonako Udala. • Esperientziak partekatzea: Redaps-ek saritutako egitasmoak, Marqués de Villena eta Salestarren BHI. • Solasaldia. - Urtarrilak 7: Elkarteek eta ikastetxeek partekatzen dituzten egitasmoak: ApS metodologia Sarrera. - Otsailak 9: Elkarteek eta ikastetxeek partekatzen dituzten egitasmoak: ApS metodologia Proiektu bat diseinatzea.
Iraupena	
10 ordu (aurrez aurrekoa)	
Nork emana	
Nafarroako Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioko Sarea elkartea.	

3	Gizarteratzea	
	3.3	LAN-MENTORETZAKO LANTEGIA

Data	Martxoak 28
Ordutegia	Asteartean, 18:30 - 20:00
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2.
Behin-behineko izen-ematea	Martxoaren 14a arte.

Helburuak	<p>Lantegi honen helburua da lan-mentoretza ezagutaraztea, laneko trebetasunak eta gaitasunak hobetzeko tresna gisa. Horretarako, ekintza zuzenduko da aukera-desberdintasuneko egoeran dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzera bideratutako ikaskuntza-ibilbide bat diseinatuz.</p> <p>Kasu honetan, Nafarroan familia-laguntzarik ez duten gazte atzerritarrei. Lantegia gizartean esku-hartzeko metodologia horretara hurbiltzen da, eta onura ugari dakarzkie egitasmoan bai parte hartzaile diren mentoregaiei baita mentore lana egiten dutenei ere.</p>
Lan-mentoretza ezagutzera ematea etorkizunean Kideak programan mentore gisa parte hartu nahi duten boluntarioei.	
Iraupena	
1,5 ordu (aurrez aurrekoa)	Edukiak
Nork emana	
Unai Esparza Ezkurra (Gizarte Mentoretzako Kideak programa), ZABALDUZ (Gizarte Ekimeneko Kooperatiba)	<ul style="list-style-type: none"> - Sarrera lan-mentoretzara. - Lan-mentoretzaren ahalmenak gizarte ekintzan. - Gizarteratzea eta gizarte-kohesioa lan-mentoretzaren bidez. - Mentorearen rola eta bere ingurunea. Mentorearen profila. - Eztabaida eta iritzia trukatzeko. Galderak.

4

Elkarteen kudeaketa

4.1

BOLUNTARIOEN KUDEAKETA ZURE ELKARTEAN

Datak	Otsailak 17
Ordutegia	Ostiralean, 17:00 - 20:00.
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2. V. aretoa.
Behin-behineko izen-ematea	Otsailaren 10a arte

Iraupena	Gure elkarteko boluntarioak dira entitateak dituen baliabide nagusietako bat. Ikastaro honetan ezagutuko dugu zein konpromiso hartu haiekin, nola kudeatu harremana eta beharrezkoak diren dokumentuak nola egin.
3 ordu (aurrez aurrekoa)	
Nork emana	
Ana Belén Albero Díaz (Abokatu-tua, Masterra Irabazi-asmorik gabeko erakundearen kudeaketan. Gaztediaren Etxeko eta Zentroko aholkulari juridikoa).	Edukiak <ul style="list-style-type: none">- Boluntariotzaren hastapenak.- Boluntario-plana.- Boluntariotzako Ekintza duten entitateen errolda.- Erakartzea.- Harrera eta orientazioa.- Oinarrizko prestakuntza.- Hastea.- Konpromisoa.- Prestakuntza.- Parte-hartzea.- Uztea.

4	Elkarteen kudeaketa	
	4.2	ZURE ELKARTEARI INTERESATZEN ZAIO: NOLA EGIN DIRULAGUNTZA DEIALDIETARA AURKEZTEKO EGITASMOAK

Data	Martxoak 24
Ordutegia	Ostiralean, 17:00 - 20:00.
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2. Hitzaldi-aretoa (2. solairua)
Behin-behineko izen-ematea	Martxoaren 10ra arte

Iraupena	Gure entitateen egitasmoak idatzi eta ebaluatzea ezinbestekoa da egitasmo arrakastatsu bat edukitzeko. Ikastaro honetan nahi dugun eragina izateko eta subentzioetatik jasotako finantzabidea duten egitasmoak diseinatu eta kudeatzeko kontu garrantzitsuenak ezagutuko ditugu.
3 ordu (aurrez aurrekoa)	
Nork emana	<p>Edukiak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer da eta zer ez da egitasmo bat. - Egitasmo bat osatzeko oinarrizko eskema. - Dirulaguntza deialdien terminologia eta, gure proiektuaren eta dirulaguntzaren arteko korrelazioa. - Adibide zehatz bat: deialdia, hiritarren partaidetzarako dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko 2023an
Ana Belén Albero Díaz , abokatua. Masterra Irabazi-asmorik gabeko erakundeen kudeaketan. Gaztediaren Etxeko eta Zentroko Aholkulari Juridikoa.	

4	Elkarteen kudeaketa	
	4.3	ELKARTEEN FINANTZAKETA ETA KONTABILITATEA

Data	Otsailak 6 eta 8
Ordutegia	Astelehen eta asteazkenetan: 17:00 – 20:00
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2.
Behin-behineko izen-ematea	Urtarrilaren 25a arte

Iraupena	Funtsak bilatzeak eta horiek kontabilitatean islatzeak askotan kezkatzen ditu elkarteak. Ikastaro honen bidez oinarritzko tresnak eman nahi dira, finantzaketa bilatzea eta hura kontabilitatera itzultzea arazo izan ez dadin entitateendako.
6 ordu (aurrez aurrekoa)	
Nork emana	Elkarte baten kontabilitate- eta finantza-hastapenei buruzko ikastaroa da, kontabilitaterik inoiz eraman ez dutenendako.
Abel Álvarez Páez , Ekonomiako lizentziaduna. Kontu-hartzailea.	<p>Edukiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Araudia • Finantzabideak. • Zer da kontabilitatea, kontzeptuak, zertarako balio du... • Kontabilitatea eramatera behartuta nago? Nola egiten da kontabilitatea? • Kontabilitate-motak. • Kontabilitate-prozesua: Hasiera. Garapena. Itxiera, urteko kontuak. • Egunerokoa, kontabilitate-kontuak. Liburu Nagusia. Urteko kontuak, balantzea, emaitza-kontua eta memoria. • Adibide praktikoak: gastuak eta diru-sarrerak. • Programak eta tresnak.

5	Trebetasun teknologikoak	
	5.1	CANVA, ZURE AFIXAK, IRUDIAK ETA BIDEOAK ALDEZ AURREKO EZAGUTZARIK IZAN GABE SORTZEKO DISEINUKO-KONTZEPTUAK ETA DOAKO BESTE BALIABIDE BATZUK.

Datak	Otsailak 14, 16, 21 eta 23
Ordutegia	Astearte eta ostegunean, 17:00 - 20:00
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2
Behin-behineko izen-ematea	Otsailaren 7a arte

Iraupena	<p>Ez duzu Photoshop jakin beharrik, ezta diseinatzailea izan beharrik, afixa on bat egiteko. Gakoa ez da tresna, zer helarazi nahi duzun jakitea eta diseinuaren oinarritzko ezagutzak edukitzea baizik. Ikastaro honetan honako hauek ikasiko dituzu: iturriak eta koloreak ongi aukeratzeko, kalitatezko irudiak eta bideoak non aurkitu doan. Hierarkiak testuetan duen garrantzia, edo baita afixako elementuen konposizioa ere. Hori bai, beste guztia menperatzen duzunean, CANVA zuketuko dugu, modan dagoen doaneko programa, gure sorkuntzak minututan egiteko.</p>
12 ordu (aurrez aurrekoa)	
Nork emana	
Ana Cortaire Ciordia. Marketing digitaleko prestatzailea eta sare sozialetako komunikazioko eta publizitateko espezialista.	
Helburuak	
<ul style="list-style-type: none"> - Oinarritzko ezagutzak eskuratzea, honako hauei buruz: diseinua, koloreak, tipografiak, konposaketa. - Zeure afixak eta beste eduki grafikoak minututan sortzeko gai izatea. - Interneten eskuratzen ahal diren diseinurako ezinbesteko eta doako baliabideak ezagutzea. - Hausnartzea non argitaratu edo partekatuko duzunaren arabera zein eduki eta formatu mota den eraginkorra. 	
Edukiak	
<ul style="list-style-type: none"> - Zure sorkuntzak aldatuko dituen diseinu grafikoko gakoak: - Canva eta horren funtzio ez hain intuitiboak: - Baliabideak: <ul style="list-style-type: none"> a. Kolore-paleta. b. Iturriak: identifikazioa eta konbinazioak. c. Diseinatzaileendako inspirazio-sareak. d. Txantiloiak e. Doako irudiak. f. Bideoak. g. Audioak. h. Ikonoak. <p>Ikastarora joanen diren guztiek ordenagailua eraman beharko dute (ez mugikorra, ez Tableta) eta eskola %100 praktikoa izanen da. Hizlariak gai-tegiko azalpen guztiak adibide eta ariketa praktikoz lagunduta emanen ditu.</p>	

6	Kulturartekotasuna	
	6.1	NAFARROAKO GIZARTEAREN KULTUR-GAKOAK KULTURARTEKO BITARTEKOTZARAKO

Datak	Martxoak 14
Ordutegia	Asteartean, 17:00 - 20:00
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2
Behin-behineko izen-ematea	Otsailaren 28a arte

Iraupena	<p>Ikastaro honetan Nafarroako kultura ezaugarritzen duten gako eta elementuak emanen dira. Ezagutza beharrezkoa da elkarreragin kultural positiborako eta kulturarteko komunikazio ezinhoberako. Horrek, zalantzarik gabe, balizko gatazka edo talka kulturalak kudeatzen lagunduko digu.</p> <p>2001eko Aniztasun Kulturalari buruzko Adierazpen Unibertsalean jasotako kulturaren definiziotik abiatuko da: kultura gizarte baten edo talde sozial baten ezaugarri diren bereizgarri espiritual eta materialen, intelektualen eta afektiboen multzotzat hartu behar da, eta barne hartzen ditu, arteez eta letrez gain, bizimoduak, elkarrekin bizitzeko erak, balio-sistemak, tradizioak eta sinesmenak.</p> <p>Atzeritar jatorriko pertsonei zuzendutako tailerra. Aurreinskripzioan adierazi behar duzue gaztelaniaren eta beste hizkuntzen ezagutza-maila, behar izanez gero Kulturarteko bitartekaritza eta esku-hartze komunitarioko zerbitzuaren bidez, beharrezko bitartekoak jartzeko saioa garatzeko.</p>
3 ordu (aurrez aurrekoa)	
Nork emana	
GURUTZE GORRIA - Kulturarteko bitartekaritza eta esku-hartze komunitarioko zerbitzua	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Nafarroako gizartearen elkarrekintza hobeezina ahalbidetuko duten gakoak ematea.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Zer da kultura - Nafarroako kultura identifikatzen duten ezaugarriak - Kultur-elkarreraginerako gakoak
Metodologia	<p>Ikastaroa metodologia parte-hartzailearen bidez emanen da. Kasu praktiko laburren bidez balizko kulturarteko talken adibideak emanen dira eta horiek kudeatzeko modua kultur-gakoak kontuan hartuta.</p> <p>Ikastaroa beste hizkuntza batzuetan emateko aukera (arabiera, ingelesa...)</p>

6	Kulturartekotasuna	
	6.2	KULTURARTEKO BITARTEKARITZARAKO KULTUR-GAKOAK

Datak	Martxoak 16 eta 21
Ordutegia	Astearte eta ostegunetan, 17:00 - 20:00
Tokia	ZENTRO elkarlaneko gunea (Kondestablearen jauregia), Kale Nagusia 2
Behin-behineko izen-ematea	Martxoaren 2a arte

Metodologia	Ikastaro honetan Magrebeko herrialdeetako, Saharaz azpiko Afrikako, Iberoamerikako, Bulgariako eta Errumaniako kulturak ezaugarritzen dituzten gako eta elementuak emanen dira.
Ikastaroa parte-hartzean oinarritutako metodologia baten bidez emanen da, eta azalpen teorikoa (aurkezpenez lagunduta) eta balizko talka kulturalen adibideak uztartuko ditu, kasu praktiko laburrak ebazteko.	Ezagutza beharrezkoa da elkarreragin kultural positiborako eta kulturarteko komunikazio ezinherako, eta horrek, zalantzarik gabe, balizko gatazka edo talka kulturalak kudeatzen lagunduko digu.
Iraupena	2001eko Aniztasun Kulturalari buruzko Adierazpen Unibertsalean jasotako kulturaren definiziotik abiatuko da: kultura gizarte baten edo talde sozial baten ezaugarri diren bereizgarri espiritual eta materialen, intelektualen eta afektiboen multzotzat hartu behar da, eta barne hartzen ditu, arteez eta letrez gain, bizimoduak, elkarrekin bizitzeko erak, balio-sistemak, tradizioak eta sinesmenak.
6 ordu (aurrez aurrekoa)	Helburuak
Nork emana	- Nafarroako gizartean dauden kultura ezberdinen arteko elkarreragin hobeezina ahalbidetuko duten gakoak ematea.
GURUTZE GORRIA - Kulturarteko bitartekaritza eta esku-hartze komunitarioko zerbitzua	Edukiak
	- Zer da kultura - Magrebeko herrialdeak, Saharaz azpiko Afrika, Iberoamerika, Bulgaria eta Errumania identifikatzen dituzten ezaugarriak. - Kulturarteko elkarreragin eta komunikazio ezinherako gakoak.

urtarrila	2	3	4	5	6	7	1
	9	10	11	12	13	14	8
	16	17	18	19	20	21	15
	23	24	25	26	27	28	22
	30	31					29

3.2

1. GIZARTE-TREBETASUNAK	3.2. Elkarreek eta ikastetxeek partekatutako egitasmoak: APS metodologia
1.1. Pertsonen arteko gatazkak kudeatzea	3.3. Lan-mentoretzako lantegia
1.2. Harreman seguruak/Harreman ez-segueruak: harreman-osasuna eta bizikidetza bakean	4. ELKARTEEN KUDEAKETA
1.3. Komunikazio eraginkorra praktikatuz (euskaraz)	4.1. Boluntarioen kudeaketa zure elkartean
2. PARTAIDETZA-TRESNAK	4.2. Zure elkarteari interesatzen zaio: nola egin dirulaguntza deialdietara aurkezteko egitasmoak
2.1. Antzerkia esku-hartze sozialerako eta ahalduntze individual eta kolektiborako tresna gisa (euskaraz)	4.3. Elkarteen finantzaketa eta kontabilitatea
2.2. Bizikidetza sustatzea: bitartekaritzako esku-hartzeetarako tresnak eta estrategiak	5. TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK
2.3. Bilerak dinamizatzeko oinarritzko baliabideak (gaztelaniaz)	5.1. CANVA, zure afixak, irudiak eta bideoak alde aurreko ezagutzarik izan gabe sortzeko diseinuko-kontzeptuak eta doako beste baliabide batzuk
2.4. Bilerak dinamizatzeko oinarritzko baliabideak (euskaraz)	6. KULTURARTEKOTASUNA
2.5. Visual Thinking: marrazkiak prozesuak komunikatzeko eta errazteko	6.1. Nafarroako gizartearen kultur-gakoak kulturarteko bitartekotzarako
2.6. Ez ezazu kontaktzeko beldurrik izan: jendaurrean hitz egiteko teknikak	6.2. Kulturarteko Bitartekaritzarako kultur-gakoak
3. GIZARTERATZEA	
3.1. Gizarte mentoretza: laguntza informala	

otsaila

		1	2 2.5/3.2	3 2.5	4	5
6 4.3	7 3.2	8 4.3	9 2.5 / 3.2	10 1.3 / 2.5	11 1.3	12
13	14 3.1 / 5.1	15	16 2.5 / 5.1	17 2.5 / 4.1	18	19
20	21 5.1	22	23 5.1	24	25	26
27	28					

1. GIZARTE-TREBETASUNAK	3.2. Elkarrekin eta ikastetxeekin partekatutako egitasmoak: APS metodologia
1.1. Pertsonen arteko gatazkak kudeatzea	3.3. Lan-mentoretzako lantegia
1.2. Harreman seguruak/Harreman ez-segurua: harreman-osasuna eta bizikidetzaren bakea	4. ELKARTEEN KUDEAKETA
1.3. Komunikazio eraginkorra praktikatu (euskaraz)	4.1. Boluntarioen kudeaketa zure elkartearen
2. PARTAIDETZA-TRESNAK	4.2. Zure elkartearen interesatzen zaien: nola egin dirulaguntza deialdietara aurkezteko egitasmoak
2.1. Antzerkia esku-hartze sozialerako eta ahalduzko indibidual eta kolektiborako tresna gisa (euskaraz)	4.3. Elkartearen finantzaketa eta kontabilitatea
2.2. Bizikidetzaren sustatzea: bitartekaritzako esku-hartzeetarako tresnak eta estrategiak	5. TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK
2.3. Bilerak dinamizatzeko oinarritzako baliabideak (gaztelaniaz)	5.1. CANVA, zure afixak, irudiak eta bideoak alde aurreko ezagutzarik izan gabe sortzeko diseinuko-kontzeptuak eta doako beste baliabide batzuk
2.4. Bilerak dinamizatzeko oinarritzako baliabideak (euskaraz)	6. KULTURARTEKOTASUNA
2.5. Visual Thinking: marrazkiak prozesuak komunikatzeko eta errazteko	6.1. Nafarroako gizartearen kultur-gakoak kulturarteko bitartekotzarako
2.6. Ez ezazu kontatzeko beldurrik izan: jendaurrean hitz egiteko teknikak	6.2. Kulturarteko Bitartekaritzarako kultur-gakoak
3. GIZARTERATZEA	
3.1. Gizarte mentoretza: laguntza informala	

martxo

			1 2.6	2 2.6	3 2.6	4	5
6	7	8 1.2	9 1.2	10	11	12	
13	14 2.3 / 6.1	15 1.2 / 2.4	16 1.2 / 6.2	17	18	19	
20 2.2	21 2.3 / 6.2	22 2.4	23 2.2	24 1.1 / 4.2	25 1.1	26	
27 2.2	28 3.4	29 2.2	30 2.2	31 2.1	1 2.1	2 2.1	

1. GIZARTE-TREBETASUNAK	3.2. Elkarteek eta ikastetxeek partekatutako egitasmoak: APS metodologia 3.3. Lan-mentoretzako lantegia
1.1. Pertsonen arteko gatazkak kudeatzea 1.2. Harreman seguruak/Harreman ez-segueruak: harreman-osasuna eta bizikidetzaren bakean 1.3. Komunikazio eraginkorra praktikatzuz (euskaraz)	4. ELKARTEEN KUDEAKETA
2. PARTAIDETZA-TRESNAK	4.1. Boluntarioen kudeaketa zure elkartearen 4.2. Zure elkartearen interesatzen zaio: nola egin dirulaguntza deialdietara aurkezteko egitasmoak 4.3. Elkartearen finantzaketa eta kontabilitatea
2.1. Antzerkia esku-hartze sozialerako eta ahalduzko indibidual eta kolektiborako tresna gisa (euskaraz) 2.2. Bizikidetzaren sustatzea: bitartekaritzako esku-hartzeetarako tresnak eta estrategiak 2.3. Bilerak dinamizatzeko oinarritzako baliabideak (gaztelaniaz) 2.4. Bilerak dinamizatzeko oinarritzako baliabideak (euskaraz) 2.5. Visual Thinking: marrazkiak prozesuak komunikatzeko eta errazteko 2.6. Ez ezazu kontaktatzeko beldurrik izan: jendaurrean hitz egiteko teknikak	5. TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK
3. GIZARTERATZEA	5.1. CANVA, zure afixak, irudiak eta bideoak alde aurreko ezagutzarik izan gabe sortzeko diseinuko-kontzeptuak eta doako beste baliabide batzuk
3.1. Gizarte mentoretza: laguntza informala	6. KULTURARTEKOTASUNA
	6.1. Nafarroako gizartearen kultur-gakoak kulturarteko bitartekotzarako 6.2. Kulturarteko Bitartekaritzarako kultur-gakoak

Kokapena eta harremanetarako datuak

Tfno 948 42 02 66
Emaila formacion.participacion@pamplona.es
Webgunea <http://participa.pamplona.es/>
<https://participa.pamplona.es/eu/>
Youtube: participa.pamplona
Facebook: participa.pamplona
Twitter: @participa_pna
Flickr: participa.pamplona



participa.pamplona.es/



participa.pamplona.es/eu/

Partaidetzako prestakuntza ikastaroak

2023



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala



Espacio colaborativo | Elkarlaneko gunea